

Gaur urriak 10, mahai negoziatzailea bildu da, III Lan Hitzarmenaren II. Tituluko artikulua lantzeko.

9, 10, 11, eta 12. artikulua aztertu ditugu baita alde guztioan proposamenak ere. Adostasunetara iritsi gaitzkeela uste dugu oinarriko zenbait ataletan, dena den, oraindik ezin dugu erabakirik hartu eta bigarren hausnarketa egingo dugu puntu hauetan.

13. Artikuluari dagokionez alde guztion proposamenak mahai gainean jarri dira eta alde guztiok ildo beretik aldatzeko beharra ikusten dugu. Debate luzea izan ondoren, aldagai asko aztertu beharra ikusi dugu, beraz hurrengo bilerako berraztertze geratu gara.

Urriaren 30ean dugu hurrengo mahai negoziatzaileko bilera eta han ekingo diogu berriro gaia lantzeari.

Bestalde, zuretzat interesgarriak izan daitezkeen beste bi gai hauek aipatu dira:

#### **IBILTARIAK:**

Urriaren erdian 5 ibiltari kontratu egingo dira (2 Araban, 1 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan), lan metaketa kontratuak izango direnez, 9 hilabeteko iraupena izango dute, hau da, uztailaren erdirarte. Gerta daiteke hezitzaile hauek iaz bezala, haiei dagozkien haurreskoletako matrikulazioa igoko balitz, ordezkapen txikiak egin behar izatea.

#### **HAURRESKOLA BERRIAK:**

Ikasturte honetan aurreikusten diren haurreskolen irekierak.

Gipuzkoan: Intxaurren, Amara eta Zuloaga Udal Haur-Eskolaren integrazioa.

Arabian: Mariturri.

Bizkaian: Gueñes

**IDENON ARTEAN LAN BALDINTZAK  
HOBE DITZAGUN!**